



Aurkibidea

<i>Poriektuaren laburpena</i>	<i>02</i>
<i>Kokapena</i>	<i>04</i>
<i>Hirigintza</i>	<i>06</i>
<i>Gaiaren Analisia</i>	<i>09</i>
<i>Eraikinaren Analisia</i>	<i>15</i>
<i>Proiektua</i>	<i>30</i>
<i>Planoak</i>	<i>40</i>
<i>Eraikuntza</i>	<i>50</i>
<i>Egitura</i>	<i>53</i>
<i>Instalakuntzak</i>	<i>57</i>

Proiektuaren laburpena

Proiektuaren laburpena

Egungo egoera

Aguraingo herri tramaren barnean kokatzen den lantegi hau 10.800m²ko partzela okupatzen du. Eraikina abandonatua dago 2010etik, eta ondorioz partzelaren hondamena ekarri du. Eraikinaren egoera nahiko txarra da, eta urteekin gehiago. Honen itxiturak denboraren poderioz erortzen hasi dira, baina honen egitura egoera paregabea dago.

Konjunto industrialaren bolumetria nahiko interesgarria da, egitura sistema ezberdinak dituelarik barnean, egitura portikatuetatik, argi handia ixten duten zertxetara. Honela, sortzen diren bolumenak erabilera ezberdinak jasotzeko ahalmena daukate.

Partzelaren erdialdetik Santa Barbara erreka zeharkatzen du, bere ibilbidetik herri parke bat duelarik. Hau partzelarekin topo egitean desagertzen da, lantegiaren pabilioiek honen gainean hedatzen direlako.

Partzelaren erabileragatik zoruaren %32 baino gehiago produktu kimikoekin kutsatua dago, eta bizigarriak diren nibelak asko gaintzen dira.

Esku hartzea



Proiektuarekin partzelaren berreskurapen bat proposatzen da, lantegia eta erreka bizilagunei eskaintzen. Hau lortzeko ibaiaren aroko bolumenak eraitsi dira, eta etekin gehien atera ahal zaien bolumenak birgaitu dira.

Errekaren presentzia indartzearen honen segidan existitzen den parkeri jarritasuna eman zaio. Partzela parke bat bezala tratatu da, non puntu indartsua erreka da, eta honen inguruan herriaren probetsurako espazioak antolatzen dira.

Sortzen/birgaitzen diren espazioak kultur ekintzak jorratzeko bideratzen dira, herriko elkarteek espazio handiko beharrak asetzeko tailerrak behar dituztelako, eta udaletxeak partzela honen jabe delako.

Partzelaren kutsadura inguruko auzoetako bizilagunentzako arazo larri bat da. Hau konpontzeko, ahal den eanean, metodo naturalekin (bioerremediazioa) lurra garbitzea proposatzen da. Hau prozesu oso luzea denez, eta partzelaren tamaina handia denez, proiektua hiru etapatan egitea proposatu da. Honela, partzela garbitzen den heinean, bizilagunek espazioak erabili ditzakete.

GrAL-ean proiektualki garatuko den etapa lehenengoa da, bertan programaren erabilera guztiak sartzen direlarik.




Kokapena

Kokapena

Agurain Euskal Autonomi Erkidegoko hego-ekialdean kokatzen da. Araba eta Nafarroaren arteko mugatik gertu kokatua, Gasteiz eta Iruña konektatzen dituen bidean dagoen herririk handienetakoa da. Arabako Lautadaren parte osatzen du, izen bereko eskualdearen hiriburua izanda.

Herri honen hegoaldean Curtidos Salvatierra lantegia kokatzen da, erabilerarik gabeko eraikin handi eta kutsatu bat, herri nukleoarekin erlazio oso zuzena daukana. Partzela 10.600m² ditu.



E: 1/7500

Hirigintza

Hirigintza

Plan Bereziak proposatutakoa (2017ko ekaina)

- Orubearen erabilera: Parkea + bizitokiak
- Eraikigarritasuna: 13.250m²
- Eraikinen profila: B + 3 (13-14m)

Proiektuarekin proposatutakoa

- Orubearen erabilera: Parkea + ekipamendu kolektiboa
- Eraikigarritasuna: 13.250m²
- Eraikinen profila: B + 3 (13-14m)

Hiri Antolamendu Plan Orokorra (2016ko martxoa)

“EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala”

Ibairen ibilgu publikoa eta eraikuntzen gutxienerako atzerapena mugatzen du. Eremu honetan erabilerak arautzen ditu:

- Erabilera egokiak: ekosistemaren hobetzea eta mantentzerako egokiak diren ekintzak.
- Erabilera onargarriak: aisialdirako ekintzak, ehiza, arrantza, nekazaritza, abeltzaintza, negutegiak, garraio bideak, instalakuntzak A eta B motakoak.
- Erabilera debekatuak: industria agrarioa, zabortegeak.

Ekipamendu kolektiboak

Hirigintza aldetik ez dira ekipamenduei bideratutako lurzorua aurreikusten, herriaren biztanleria kontutan izanda. Bestalde Arabako Ekialdeko Lautadaren hiriburua izateko estrategia sendotzeko ekipamenduetarako lurzorua proposatzen da. HAPOak ekipamendu kirol-ludikok errefortzatzea proposatzen du.



Parkeak

Herri nukleoaren barnealdean 650.532 m²ko parke bat aurreikusten da.

Hirigintza lege orokorrak _ Hiri lurzoru erabilera ez bizitokia

Lege orokorrak betetzen ez duten eraikinak ordezkaten duten eraikuntzek Plan Orokorra aurreikusten duena jarraitu beharko dute. Eraikigarriak ez diren lurzorua instalakuntzetarako, bideetarako, aparkalekurako eta berdegunetarako bideratuko dira.

Sotoko solairu bat eraikitzea onartzen da 2.25-3.5m altuera izango duena. Eraikuntzen altuera totala 12m dira, estalkia 2.5m gehiagokoa izateko aukerarekin. Partzelaren %10 14mtara heltzeko aukera izango du. Solairuen altuera ezin da 2.5m baino txikiagoa izan. Ekipamenduetarako bideratutako eraikinetan ez dira limiterik jartzen hegalean arloan.



Hirigintza

449/2013 DEKRETUA, azaroaren 19koa, EAEko Kantauriko eta Mediterraneoko isurialdeko Ibaiak eta Errekak Antolatzeako Lurraldearen Arloko Planaren behin betiko aldaketak

– Lehentasunezko fluxu-eremua: uraldietan zehar fluxua nagusiki biltzen den zona (edo zonak) edo huste biziko bidea, eta 100 urteko errepika-denborako uraldiak pertsona eta ondasunen gainean kalte larriak eragin ditzakeen zona elkartzen diren eremua da; bi zona hauen ingurutzailak ematen digu eremu honen kanpoko muga.

E) Berariazko araudia, osagai hidraulikoaren arabera.

1.– LAPean aplikatu beharreko lurralde antolaketaren irizpide orokorrak –osagai hidrológico eta hidraulikoaren arabera– helburu bikoitza du: batetik, urak har ditzakeen eremuetan, batez ere hiriguneetako eremuetan, uholde arriskuen aurrean babes neurriak hartzea; eta bestetik, lurzoruaren erabilerak erregulatzea ibai bazterretan eta ur ibilguen inguruan urak har ditzakeen eremu guztietan.

E.2.– Berariazko araudia, uholdeen aurkako babesari buruz.

E.2.3.– Lurzoruaren berariazko erregimena eta jarduerak lehentasunezko fluxu-eremuan sartuta dauden eta urak har ditzakeen eremuetan.

– Lehentasunezko fluxu-eremuan baimendutako erabilerak

1) Nekazaritzako erabilerak: nekazaritzako lurrak, larreak, baratzezaintza, mahasgintza, soropilak, basogintza, aire libreko mintegiak eta baso-landaketak.

2) Ukuiluratu gabeko abeltzaintza erabilera.

3) Laket-erabilerak, publikoak eta pribatuak: parkeak eta lorategiak, golf zelaiak, kirol pistak, atsedentokiak, igeriketarakoak, ehizarako natur erreserbak, ehiza edo arrantzako barrutiak, txango edo ekitazio zirkuituak; kanpoan geratzen dira instalazio horien, hala dagokionean, osagarri diren ibilgailuetarako aparkalekuak.

4) Ingurunearekin lotutako erabilerak, hala nola, ibaiertzeko ekosistemaren kontserbazioa, gaitasun hidraulikoarena, drainatze iraunkorra, zaintza eta salbamendu jarduerak.

5) Ibaiaren husteko ahalmena nabarmen murriztea ekidingo duten komunikazio-azpiegituren eta lurpeko kanalizazioen gurutzaguneak.

– Oro har, ez dira baimenduko honako hauek:

1) Bizitegi erabilera berriak, kanpaldiak barne.

2) Eraikin berriak, erabilera edozein dela ere.

3) Lehendik dauden eraikinak konpontzeko lanak, oinplanoan duten okupazioa edo bolumena aldatzea badakarte, edota eraikinen erabilera aldatzea, horrek uholde kasuan kalteak jasateko arriskua areagotzen duenean.

4) Argiak ez diren berotegiak, itxiturak eta hesiak, hala nola edozein motatako fabrikako murriz egindako itxiturak.

5) Mota guztietako betelanak, edozein motatako hondakin-materialen metaketak, are gehiago hustubidearen sekzioa nabarmen murrizten dutenean, Jabari Publiko Hidraulikoa kutsatzea edo andeatzea ekar dezaketenean, edo flotatu edo arrastatuak izan daitezkeelarik drainatze-lan, zubi eta abar ixtea eragin dezaketenean.

6) Ikastetxeak edo osasun zentroak, zaharren edo urritu fisiko edo psikikoen etxeak, suhiltzaile parkeak, babes zibileko zerbitzuen instalazioak, gasolindegia, abeletxeak eta animalia haztegiak.

7) Ibaiaren paralelismoa helburu izanik diseinatzen diren azpiegitura linealak, saneamendu- edo hornidura-instalazio edo lurpeko kanalizazioak salbu. Kasu horietan, edonola ere, irtenbide bideragarriak egon ezean, jabari publiko hidraulikoaren zortasun-zonatik kanpo egingo dira.

8) Ibilgailuen aparkalekuak, gainazalekoak izan ezik. Kasu horretan, erliebea edo husteko ahalmena ez dute kaltetuko, ez du eraikinik izango eta uholde kasurako abisu-sistema eta ibilgailuak kentzeko sistema izango du.

3.– Aparteko kasu gisa, eta onarpenaren unean uholde arriskua kudeatzeko planek ezartzen dutena bete beharko delarik, lehentasunezko fluxu-eremuan hirigintzako aprobeitxamendu berriak onartu ahal izango dira, Lurzoruari buruzko testu bategina onartzen duen ekainaren 20ko 2/2008 Legegintzako Errege Dekretua indarrean sartzen den unean Lurzoruaren Legeak berak 12.3 artikuluan definitzen duen urbanizatu egoeran dauden lurzoruetan, baldin eta ondoko balizko hauetako ren bat bada:

a) Alde batean edo bietan eraikuntza finkatuko mehelinak dauzkaten orubeak, edota lehendik dagoen lurzoru urbanizatuaren barnean erabat sartutako orube isolatuak.

b) Eraikuntza zaharkituko hiri eremuak, horietan erabateko hiri birmoldaketa gara daitekeenean, erabilera aldatuta edo aldatzeke, eta birmoldaketa horren bidez lor badaiteke urpean geratzeko arriskuaren aurreko baldintzak hobetzea, bai oztopo hidraulikoak kenduz, ibai ibilgua handituz edota inguruko drainatze-baldintzak oro har optimizatuz; birmoldaketa lan horien bidez bermatu egin beharko da ez dela nabarmen areagotuko (ur-laminaren igoera 10 cm-tik gorakoa izatea 500 urteko errepika-denborako uholdearen kasuan) inguruak urpean geratzeko duen arriskua.

Gaiaren Analisia


Agurain: Arabako Lautadaren hiriburua



Lautadaren morfologia

Eskualdea Zadorra ibaitik ureztatua dago, eta mendilerroez inguratua: iparraldean Kantauri eta Mediterraneo isurialdeak banatzen dituen mendikatea, eta hegoaldean Arabako mendilerro zentralak. Lautadaren altuera 500-600m bitartekoa da.


- Zadorra ibaia
- Kantauri-Mediterraneo banaketa mendiak
- Lautada
- Arabako mendilerro zentrala
- Agurain



Eskualdearen banaketa


Araba sortzen dituen zazpi eskualdeetako bat da. Probintziaren ekialdean kokatzen da. 60 aldea txikiez osatua dago (bakoitza hamarkada pertsona batzuetatik osatua), nekazar bizimodua dutenak. Aldea hauek zortzi udalerrietan multzokatzen dira. 2013an eskualdea 12.523 biztanle zituen.

- Agurain - Salvatierra
- San Millan - Donemiliaga
- Asparrena
- Zalduondo
- Iruraiz Gauna
- Alegria - Dulantzi
- Elburgo
- Barrundia
- Agurain



Bide garrantzitsuak

Zonalde hau urteetan zehar bide ezberdinak zeharkatu ditu. Eza gutzen den lehena erromatarren Iter XXXIV galtzada zen. Hau Burdeos eta Astorga lotzen zituen. San Adrianeko tuneletik sartzen zen (ipar-ekialdean) eta lautadaren erditik Gasteizera bideratzen zen. XII. mendean Done Jakueren bidearen saihasbide bat egin zen, eta erromatar galtzada berrerabili zen Arabako inguru honetan. XV-XVII mendeen artean bide hau Posta Bide Erreal modura erabili zen. XIX. mendean Madril-Irun trenbidea sortzen da Lautada zeharkatuz. XX. mendean A-1 autobia lautada bitan banatzen du. Bide guzti hauek Agurain dute puntu komun bezala eskualdean.




- Done Jakue bidea
- Trenbidea
- A-1 autobia
- Agurain

Datu esanguratsuak

Eskualdean Red Natura 2000 erakundearen parte hartzen duten hainbat parke daude: Aizkorri-Aratz parkea, Zadorraren urtegia eta Entzia parkea adib. Hainbat museo esanguratsu daude: Zalduondoko Museo Etnografikoa, Eginoko Gazta Museoa, Henaio Kastroko Arkeologia Museoa eta Estibalizko Erromanikoaren Interpretazio Gunea.

Lautadaren komertzial guneak Araia, Alegria-Dulantzi eta Agurainen daude, herririk handienak. Eguneroko beharrak asetzeko zerbitzuak dituzte (medikua, dendak, tabernak...). Agurain eskualdearen hiriburua da, aktibitate sozioekonomiko handiena duelako, eta eskualdearen 40% biztanleria duelako.



- Red Natura 2000
- Museoa
- Agurain
- Araia
- Alegria

Aguraingo garapena

Herriaren testuingurua

Agurain erdi arotik existitzen den hiribildua da. Arabako lautadaren erdigunean kokatzen den muino baten gainean kokatu ziren lehendabiziko bizilagunek Agurain izeneko herrirka batean. 1256. urtean Alfonso X.ak Salvatierra fundatu zuen, eta herrirka harresi batez inguratu zuen. Aro horretakoa herriaren alde zaharra dago: almendra oin plantako auzo hau hiru kaleetan zatitzen da ipar-hego norabidekoak. Ipar eta hego erpinetan bi eliza-gotorleku ditu estilo gotikokoak, eta hegoaldekoaren aurrealdean merkatu enparantza. Auzo osotik banatuak jauregiak kontserbatzen dira.

XX. mendearen bigarren erdialdetik aurrera herria hego-mendebaldera hedatu zen, momentu batean landa lurak eta lantegiak okupatzen zituzten lurretara. Auzo hauetan hiri trama zabalagoa da, eta noizbehinka parkeak tartekatzen dira. Eraikin hauen erabilera bizilekuak dira ia bere osotasunean. Gaur egun herriaren biztanleriaren erdia baino gehiago bertan bizi da.

Bi auzo hauek banatzen Foru kalea dago, bere egunean N-1 izan zena. Herriaren hegoaldean Irun eta Madril lotzen dituen trenbidea pasatzen da.

Alde zaharraren mendebaldean ekipamenduen gunea kokatzen da, non osasun ekipamenduak, kirol gunea eta hezkuntza ekipamenduak kokatzen dira.


Trenbidearen hegoaldean eta herriaren mendebaldean industria gunea kokatzen da, herriaren tamainaren ia bikoitza okupatzen duena. Industriadun hauen hegoaldean A-1 autobidea pasatzen da.

XXI. mendearen hasieran alde zaharraren ekialdean auzo berri bat planteatu zen, eskala nahiko handikoa, eta oraindik orube batzuk eraiki gabe dituen.

Herria inguratzen landa lurak daude, non duela urte batzuk patata asko landatzen zen, baina gaur egun zerealak hauei lekua kendu diete. Batez ere garia eta garagarra landatzen dira.

Herriaren hazkundea



Urteak aurrera doaz ahala, Aguraingo biztanleria gorantz joaten da. 1900. urtean 1.393 biztanle zituen herria, eta 2017. urtean 5.069.



Biztanleria horretatik ehuneko handi bat erretiratuak dira. 2001. urtean 614 pertsona zeuden 65 urte baino gehiagokoak, eta 2017an 803.

Hau Arabako Lautadako eskualdean ere nabaria da, 2001. Urtean 34250 pertsona zeuden 65 urte baino gehiagokoak, eta 2017an 51532.

Honek esan nahi du urteekin multzo honetan sartzen den jendea handitzen doala. Fenomeno hau urte batzuetan bikoitza da, 50-70 hamarkadetan gertatutako baby boom-arekin jaiotako biztanleria erretiratutako denean.



- Alde zaharra
- Dentzitate handiko auzoa
- Dentzitate baxuko auzoa
- Eraikin esanguratsuak
- Kirolgunea
- Hezkuntza ekipamenduak
- Industriagunea
- Landa lurak

Aguraingo erdigunea

Jatorrizko erdigunea

1256. urtean Alfonso X.ak Salvatierra hiribildua fundatu zuen Gasteizko Foruen barruan. Urte horretatik herriaren eguneroko bizimodua harresien barrualdera mugatu zen. Mendeak pasa ahala, batez ere XX. mendearen hasieran, herriko biztanleek harresien kanpoaldean bizitzaren egiten hasi zuten, gaur eguneko egoerara heldu arte.

Alfonso X.ak hiribildu tituluekin batera asteartetan merkaturak egiteko eskubidea eman zien. Momentutik San Juan enparantzan eskualdeko jende ugari biltzen da sal-erosketak egiteko. Honek enparantza honen inguruetan eta Kale Nagusiko lokaletan komertzioak sortzea ekarri zuen. Honela, hasieran alde zaharreko 3 kaleek komertzio ezberdinetara bideratu ziren: Carniceria kalea, Zapatari kalea, eta Kale Nagusian jauregiak eta "luxuzko" komertzioak finkatu ziren.

Mendeen gora beherekin kale hauetako komertzioak aldatzen joan ziren, baina hiru kale hauek zuten eguneroko bizimodu aktiboa mantendu zen ukitu berarekin. Kale hauetan festak, tradizio erlijiosoak eta beste ospakizunak egiten ziren. Aguraingo alde zaharra herriaren bihotza izateaz aparte, eskualdeko bihotza bihurtzera pasa zen.

Hau 1970ko hamarkadan aldatzen hasi zen.



■ Erdigune zaharra ■ Erdigune berria 🛒 Dendak 🍷 Tabernak € Banketxea 🏃 Kirol gunea

Herriaren erdigune berria

1970ko hamarkadan herriko lantegi handien sorkuntza gauzatu zen, eta hau biztanleriaren gorakada bat suposatu zuen. Inguruko herrietako jendea Agurainera lan egitera joan zen, eta urte horietan extremaduratarren mudantza esanguratsua egin zen.

Biztanleria berrirako harresien hego-mendebaldean etxebizitza bloke berriak eraiki ziren. Honela herriaren hiri trama aldatu zen, eta honekin bere bizimodua.

Urteekin komertzio handiagoak planteatzen hasi ziren trama berri horretan, eta eguneroko bizimodua harresietatik kanpora ireki zen. Jendea bere eguneroko bizimoduan herri osotik hedatzen zen bere beharrak asetzeko.

Eraikin berriek eskaintzen zuten lokalak merkatarien atentzioa erakarri zuen, eta alde zaharreko loteen lokalak uztea ekarri zuen. Honekin gutxinaka alde zahararen komertzioak desagertzea ekarri zuen.

Honela herriaren erdigunea desplazatu zen. Gaur egun alde zaharrean geroz eta komertzio gutxiago egoteak bertatik pasatzen den jende kopuruaren beherakada ekarri du, eta denborarekin bertan bizi den jendearen gutxitzeak. Hau ez da faktore bakarra: alde zaharreko eraikin askok birgaitze baten beharra daukate, eta udaletxeak auzoa oinezkoentzako egitearen nahia auzoaren jende afluentsia gutxitu du.

Gaur egungo herrian, XXI. mendean, erdigunea San Martin auzoaren ingurunera mugitu da. Bertan eguneroko beharrak asetzeko guztia daukazu. Alde zaharra, autobus geralekua eta tren geltokitik gertu dago, kirol gunetik gertu dago, komertzio asko dago, kaleak zabalagoak dira, aparkalekuak daude...

Hala ere, alde zaharrean ospakizun eta tradizio guztiak ospatzen dira, eta egun/momentu puntualetan hau erdigunea (bihotza) izatea suposatzen du.

Beraz, esan dezakegu orain Agurain bi bihotz dituela: egunerokoa, San Martinen, aktibitate konstantea duen lekua; eta puntuala, alde zaharrean, jai-tradizio alorrera lotua dagoena.



Aguraingo ekipamenduak

Herriaren ekipamenduak

Agurain bizimodu aktiboa duen herria da. Bere biztanleria egunero ekintza ezberdinak jorratzen ditu. Arabako Lautada eskualdearen erdialdean egonda inguruko herrietako jendea ere erakartzen du. Hau dituen ekipamendu kolektiboetan nabarmentzen da.

5.000 biztanle baino gehiagoko herri hau 71.200m² baino gehiago dauzka ekipamendu publikoei bideratuta. Hauetatik nabarmendu behar da hiru laurden baino gehiago kirola eta hezkuntzarako direla. Zehazki hezkuntzarako 22.000m² eta kirolerako 34.600m². Honela esan dezakegu herriaren biztanleria kirol asko kontsumitzen duela.

Baina kirolaz aparte ze aktibitate egin ahal dira udaleko ekipamenduetan? Zer da biztanleria eskatzen duena?



Ekipamendu kulturalak

Kultura Agurainen pixkanaka hazten joan den arloa da. Urteekin ekipamenduak eta ekitaldiak jorratzen joan da, baina beti erritmo motelean. Kultur aktibitateak egiteko bideratzen diren espazioak 3.050m²ara ez dira heltzen. Hau hiribilduak duen biztanle kopururako eskasa ikusi daiteke.

Ekipamendu hauek alde zaharreko eraikin eta espazio ezberdinetan banatzen dira, auzoa kulturaren gune handi bat bihurtuz. Ideia hau etorri zen udaletxeak dituen eraikin historikoak erabiltzeko eta beraien izaerari etekina ateratzeko. Honela gutxinaka afluentsia jaisten zuen auzo hau berpiztuko litzateke.

Arazoa izan da eraikin historiko hauek daukaten loteen estatusunagatik sortu diren espazioak nahiko txikiak direla, eta demanda duten aktibitate kulturalak jorratzeko ez direla nahikoa. Honek ekarri du kultura kontsumitzen duen jende kopurua jaitea, eta alde zaharreko berpizkundea pikutara joatea.

Duela bi urte, elkarte kulturalak udaletxeari kexa bat jarri zioten biltzeko leku nahikorik ez zutelako, eta kirol-gune berrian espazio batzuk eskaini ziren, eraikin honetan kirolerako behar ziren espazioak baino gehiago eraiki zirelako. Hemen ikusi dezakegu udaletxearen nahiak zeintzuk diren.

Alde zaharreko berpizkundea alde batera utziz, nola berpiztu daiteke aguraindarrek kultura kontsumitzeko nahia? Ze espazio beharrezkoak dira herriko elkarte eta ekintza kulturalak aurrera eramateko?


1 _ Udaletxea



2 _ Zabalarte _ Erakusketa aretoa



3 _ Harresi Aretoa _ Balio anitzeko aretoa




4 _ Uriarte eraikina _ Elkarteetarako gelak




5 _ Musika eskola




6 _ Liburutegia



7 _ Simon Martinez 8 _ Elkarteetarako gelak



8 _ Lezao kirolgunea _ Elkarteetarako gelak



Aguraingo elkarteak

Elkarteak

Agurainen 61 elkarte daude. Hauek hiru arlotan banatzen dira: kirola, komertziala eta kulturala. Hau gertatzen da Agurain 5.000 biztanle baino gehiago izateaz aparte, inguruko herririk handiena delako, eta inguruko bizilagunek beraien aisialdiko denbora bertan asetzen dutelako.

Elkarte bakoitza bere bilera espazioa dauka udaletxeak eskaintako instalazioetan, herri nukleoaren barruan. Udaletxeak diru ugari gastatu ditu azken urteetan herriko kirol instalazioak hobetzeko eta handitzeko, HAPOak aurreikusten duen modura, eta beste arloak alde batera hutsi ditu.

Herriaren kultura arloko 35 elkarte daude. Hauek herriak dituen elkarte kopuruaren erdia baino gehiago dira. Egunero kurtsoak eta tailerrak ematen dituzte, eta noizbehinka jardunaldiak edo festa kulturalak antolatzen dituzte.

Erretiratuek kultura kontsumitzen duen gizarte talde garrantzitsua da. Ez dira urte batzuk bezalakoak, taberna bat eta kartetara jokatzeko lekuarekin konformatzen zirenak; gaur elkarteetan sartzen dira. Duten denbora aisialdiera eta kulturara bideratzen dute.



Sallurtegui
Asociación Cultural de Mujeres

Descripción de la comunidad
La "Asociación Cultural de Mujeres Sallurtegui", existe desde año 1991, como continuidad de los grupos de Cultura Popular de Vitoria. La "Asociación Cultural de Mujeres Sallurtegui" lleva una trayectoria de trabajo y desarrollo de actividades, orientadas a la promoción de la vida asociativa y a la sensibilización acerca de la igualdad y los beneficios sociales que su consecución puede desencadenar. Es por ello que durante su trayectoria se promueve la realización de talleres y charlas que fomen...

- ▷ Taller de jabones artesanales
- ▷ Lunes: talleres culturales abiertos a todo el mundo
- ▷ Martes: manualidades
- ▷ Miércoles: actividades solidarias, ayuda mutua
- ▷ Jueves: tertulias literarias dialógicas
- ▷ Viernes: manualidades con experto



- - Sustapenean eragiteko kanpainak.
- - Herriaren euskalduntzea bultzatzeko kanpaina eta egitasmoak.
- - Transmisioan eragiteko egitasmoak gauzatu.
- - Aisialdian euskaraz bizi ahal izateko egitasmo eta ekintzak gauzatu.
- - Kirola euskaraz bizi ahal izateko egitasmo eta ekintzak gauzatu.
- - Euskal kultura sustatu.
- - Euskal literatura sustatu eta zabaltzeko egitasmoak gauzatu.
- - Erabileran eragiteko egitasmoak eta ekintzak gauzatu.
- - Euskeraz aritu ahalizateko guneak sortu.
- - Euskal komunikabideak sustatu, eta proiektu horietan parte hartu.
- - Euskal komunitatea harremanetan jartzeko eta kohesionatzeko ekintzabideak abian jarri.



Kultur ekintzak

Kultur elkarteek hainbat arlo jorratzen dituzte: euskararen lanketa, herriko eta inguruko historia eta kulturaren azterketa eta promozioa, musikaren ikasketa, sukaldatzearen ikasketa eta gozamina, guztien eskubideen defentsa, eskulanean sorkuntza, antzezlanaren lanketa, jaialdien antolaketa, jostuntza eta eguneroko beste ekintzen lanketa...

Eguneroko tailer hauek lantzeaz aparte, ekitaldi ezberdinak antolatzen dira urteko egun askeetan edo jai egunak gerturatzeko direnean. Urteak joan ahala ekitaldi kultural batzuk data finko bat hartu dute: inauterietan Porrero eta Sorginaren festa antolatzen da, eta duela urte batzuk pertsonaia hauek interpretatu duten bizilagun guztiek herria betetzen dute; San Juan egunean antzezlan tradizionala berreskuratu da; Aguraingo jaietan merkatuaren garrantzia azpimarratu da...

Tradizioak alde batera utzita, kulturarteke jaialdia ekainean, uztailean Jazzherrian festibala, udalekuak uztailean, osasun mentalaren jardunaldiak irailean, elkarkidetasunaren astea azaroan, emakumearen astea azaroan, eta musika, zine eta antzerki programazioa irailetik maiatzera.

Honetaz aparte, noizbehinka ekitaldi bereziak antolatu dira: dantza garaikidearen zikloa (2 aldiz ospatu dena), hiribilduaren fundazioaren 750 urteurrena, ondarearen arloko jardunaldiak (Eusko Ikaskuntzaren partaidetzarekin), kanpai joleen topaketa, argazkigintza jardunaldiak, eskultura jardunaldiak...

Festival Intercultural ALAI-Agurain 2017
Aguraingo jaialdi interkulturala ALAI 2017
Jueves 29 Junio: Sala Zabalarde. 18.30
KAFE-TERTULIA "Aportes sobre la Identidad Cultural"
PONENTE: Jesus Prieto Mendaza
Animete a participar en este encuentro acompañado de Té y cake. Habrá servicio de guardería.
Ekainaren 29, osteguna: ZABALARTE 18.30
KAFE-TERTULIA "Nortasun kulturalari buruzko ekarpenak"
Hizlaria: Jesus Prieto Mendaza
Parte hartu solasaldian, kafea eta tea elkarrekin hartuko dugu. Zaintza zerbitzua egongo da...
Viernes 30: Plaza de San Juan. 19.00



IV JORNADAS DE SALUD MENTAL EN AGURAIN
15, 22 y 29 de septiembre 2016
Hora: 19:00 h. Lugar: Sala Harresi



V Lehiaketa Gastronomikoa
Costa - Pintxoak Nuxu zaporea du
V Concurso "Pintxo con queso sabe a beso"
12.00H - 14.00H / 19.00H - 21.00H

Arabako Lautada Dastatu!
iDEGUSTA
Ekoizle gonbidatua / Productor invitado: Ramón Lpz. de Arkaute (Ixona)
EKOIZPEN EKOLOGIKOKO PATATEN DASTAKETA AZALDUA, PARTE HARTZEA LIBREA
CONCURSO GRATUITO CATA COMENTADA DE PATATAS DE PRODUCCIÓN ECOLÓGICA
OSTEGUNEAN, IRAILAREN 28AN 20ETAN JUEVES, 28 DE SEPTIEMBRE A LAS 20 H
IBAIA GARAGARDOTECIA (C/ DULANTZI K., 5 AGURAIN)


Eraikinaren Analisia

Lantegiaren bolumen garapena


Curtidos lantegia enpresa txiki bat bezala hasi zen, denborarekin asko hazi zena, espantsio internazionala izan arte. Gorakada hau eta gero, krisiak etorri ziren produkzioa, eta gutxinaka lan karga jaitsi zen, enpresaren atea itxi arte.

Gora behera hauek eraikinaren bolumenean influentzia asko izan zuten.


Lantegiaren lan karga asetzeko beharrezkoak ziren modulu berriak, handiagoak eta teknologia aldetik hobetoak. Hauek urteekin bata besteei atxikitzen joan ziren, eta batzuk besteei ordezkatzeko, gaur egun aurkitzen dugun konjuntura heldu arte. Honela ikus dezakegu karga-hormekin funtzionatzen duen eraikina, 22mko argia uzten duten zertzak, egitura portikatuak, egurrezko egiturak, akabera ezberdinak... konjuntura bezala guztia historia bat kontatzen duena.




Lantegia enpresa txiki bat bezala hasi zen, langile gutxi batzuekin.



Lan karga gora joan zen eina langile gehiago behar ziren, eta eraikin handiagoa. Existitzen zenari bolumen berria itsatsi zitzaion.




Espantsio internazionala dela eta, langile eta makina berriak behar ziren. Eraikinari pabilioi berriak atxikitu zitzaion.




Demanda gora joaten zenean, partzelan lekuaren falta nabaria zen. Ondorioz elementu txikiak atxikitzen hasi ziren.

Herriaren eta lantegiaren garapena


1908an Aguraingo alde zaharraren eta tren geltokiaren artean *Electra Salvatierra* enpresa sortu zen. Momentura arte eremua landa lurrak ziren. Santa Barbara ibaiaren iparraldean kokatu zen.




1938an *Fábrica de curtidos de pieles Julián López de Heredia* lantegia sortu zen, momentuko enpresarik handiena. Aurretik zegoen eraikinarekin konparatuz arkitektura estiloaren aldaketa sakona nabaritzen da.




1957an lantegia kontsolidatzen da. Honen ingurunean eta tren geltokiaren bidean industria txikia eraikitzen da.




1968rako lantegiaren tamaina bikoizten da ibaiaren bi aldeetan hedatuz. Lantegiaren hegoaldeko eremuan kanpo biltegia antolatzen da.




1977rako lantegiaren tamaina 5.000 m²ak gainditzen ditu. Inguruan etxebizitza blokeak eraikitzen hazten dira.



1998rako lantegia eta tren geltoki artean etxebizitza blokeak eta parke bat antolatzen dira. Inguruko lantegi bakarra izatera pasatzen da bizitegi auzoen artean.



2000. hamarkadan lantegiaren ipar eta mendebaldean etxebizitza eraikinak altxatzen dira, eraikina herriko hiri traman guztiz integratua geratzen.



Lantegiaren garapen historikoa


1938an *Fábrica de curtidos de pieles Julián López de Heredia* lantegia sortu zen. Herri nukleoa eta trenbidearen artean zeuden landa lurren artean eraiki zen, eskala handiko lehenengo lantegia izanda. Santa Barbara erreka-ren hegoaldean hedatu zen. Epoka horretik bulegoen eraikina, adreiluzko tximinia eta tailer txiki bat kontserbatzen dira.




1957rako lantegiaren bolumena aldatzen da, eta partzelaren hegoaldean 3 altueretako eraikin bat altxatzen da. Honen iparraldean, ia partzela osoa estaliz zerra hortzeko egitura bat eraikitzen da, Arabako lehenetarikoa, lurraldeko arkitektura industrialean hito bat suposatuz.



1968rako lantegiaren azalera bikoizten da, erreka-ren iparraldean pabilioi berri bat eraikiz. Zerra hortzeko egitura errepikatzen du, baina sekzio txikiagoekin. Dagoeneko existitzen den lantegiarekin konektatzeko, erreka 50mtan estaltzen dute. Hirigintza aldetik, herri trama pixkanaka erdigunetik trenbidera hedatzen doa.



1977rako lantegiaren azalera berriz bikoizten da, partzelaren ekialdean pabilioi berri bat eraikiz. Honen egitura sistema aldatzen da, estali behar dituen argiak handiagoak direlako.




1981rako partzelaren ipar muga Urzabal kalea irekitzen da, eta lantegiaren inguruak urbanizatzen hazten dira.

1995an *Curtidos Heredia* ixten da, eta bertako langileek *Curtidos Salvatierra* kooperatiba sortzen dute.

1995-2000 urteen artean partzelaren ingurua trinkotzen da, eta etxebizitza blokeak eta erreka inguruko parke bat eraikitzen dira. Honekin lantegia herri traman guztiz integratua geratzen da.

2010ean *Curtidos Salvatierra* lantegia ixten da, eta eraikinaren gainbehera dator. Progresiboki eraikinaren itxitura hondatzen doa, eta naturak partzelaz jabetzen da.



- 1938
- 1957
- 1968
- 1977

AMIA analisisia

Ahuleziak

Eraikinak dituen ahuleziei begira, inpaktu gehien duena kutsadura da. Partzelaren 3.417m² kutsatuak daude, eta udal-txeak deskontaminatzeko premia dauka, auzokideen gertutasunagatik.

Eraikinaren estalki ugari fibrozementukoak dira, eta amiantoa dutenez, kentzea beharrezkoa da.

Itxitura ugari, bai horizontal bai bertikalak, egoera kaltegarrian daude ur filtrazioetatik eta eraikinaren abandonoagatik. Honek urteekin itxitura parteen erorketak ekarri ditu, eta zertxa batzuen herdoilketa.

Barne espazioen arteko komunikazioa minimora eraman da, eta barne fluxuak ez dira modu lasaian egiten, behartuan baizik. Ibilbideak luzeegiak dira.

Indarrak

Eraikinaren indarrei begira, egituraren egoera eta modulazioa nabarmentzen dira. Ia egitura guztia egoera onean dago, eta kaltetua azaleko kalteak ditu. Duen modulazioa espazio ezberdinak sortzea ahalbidetzen du.

Partzela bolumen ezberdinez osatua dago, oso markatuak daudenak. Hauek erabilera ezberdinetara bideratu daitezke. Espazio zabal eta altuak daude, espazio asko eskatzen duten funtzioetarako.

Erreka partzelaren erditik pasatzen da, espazio publiko interesgarriagoak sortzea ahalbidetuko duena.

Mehatxuak

Inguruan dagoen mehatxurik garrantzitsuen partzela abandonatu bat da. Herriko erdigunetik gertu dago, eta ez dago aprobetxaturik. Hau lantegiaren iparraldean dago eta 4.300m² ditu. Barnean hiru eraikin ditu, iparraldekoak erortzen hari direnak. Hegoaldeko eraikina izaera industrialak dauka, eta lantegiarekin harreman bisualean dago; baina ez dauka erabilpenik.

Aukerak

Eraikinaren inguruari begira, herri tramaren barruan integratua dago. Komertzio gunetik gertu kokatzen da, baina honen kanpo. Bere ingurugiroa oso lasaia da, bizilekuez osatua.

Garraio publikoetatik gertu dago, tren geltokia hegoaldean bi etxadietara dago, eta autobus geralekua iparraldean hiru etxadietara dago.

Parke eta enparantza batzuekin kontaktu jarraian dago, etorkizunean hauen handipena izateko aukera izanik.




E: 1/1000

Indarrak

- Espazio zabal + altuak
- Ibaia

Ahuleziak

- Kutsadura
- Amiantoa
- Erorketak
- Komunikazio laberintikoa



E: 1/3000

Aukerak

- Komertzioa
- Parke / Enparantza
- Bus geralekua
- Tren geltokia

Mehatxuak

- Partzela abandonatua
- Errepide estuegia

Lantegiaren egoera

Curtidos Salvatierra lantegia 10.600m²ko partzela bat okupatzen du. Bertan 6.880m² baino gehiago eraikiak daude.

Konjuntua 2010etik abandonatua dago, eta honek denborarekin inguruaren hondamena ekarri du.


Partzela bi eraikin handi, bolumen txiki bat eta igerilekuetan banatu daitezke. Eraikin bakoitza forma irregularrez osatua dago, denborarekin batak besteei itsatsi direnak.

Eraikin handienaren azpitik Santa Barbara erreka pasatzen da.

Eraikina egoera nahiko desagokian kontserbatzen da. Existitzen diren itxitura ia guztiak partzialki erori dira, edo egiteko zorian daude. Itxitura horizontal ia guztiak fibrozementuzkoak dira, material kantzerigenoa. Partzelaren 32% baino gehiago kutsatua dago.

Eraikinaren egitura egoera oso onean kontserbatzen da. Altzairuzko egitura garbitu edo errefortzatzeko esku-hartzea behar du.

Partzela egoera nahiko desagokian dago, baina garbiketa, ordezkatze eta eraispentatzuekin etekin handia atera ahal zaio, osatzen duten bolumen eta kokapenari esker.



Lantegiaren egoera

1.- Bulegoen eraikina

Behe gehi bi solairutako bolumena (B+2). 585m². Altxararik luzeenak karga hormak dira, eta hauei elkartzut hormigoi armatuzko habe eta zutabeak ditu. Zurezko forjatuak ditu, eta estalkia teilaz osatua dago, zurezko zertzen gainean.

Fatxadak ondo kontserbatzen dira, baina ekialdean leiho ugari tapiatuak ditu. Hormigoizko egitura oso ondo kontserbatu (pitzadura txikiak ikusi). Zurezko forjatuak mantentzen dira, baina hezetasunak kaltetuak hutsi ditu. Goiko estalkia eta iparraldekoa ondo mantendu, nahiz eta ur filtrazioak izan; hegoaldeko estalkia guztiz eroria dago.



Lantegiaren egoera

2.- Zurraketa pabilioia

Solairu bakarreko bolumena (mendebaldean plataforma txiki bat dauka). 1012m². Zerra hortz formako estalkia dauka, zertxa metalikoez osatua. Hauek hormigoi armatuzko zutabeen gainean bermatzen dira. Hormigoizko solera dauka oinarrian. Itxiturak adreilu zulatu eta zarpiatuak dira, eta estalkia fibrozementuzko eta beira zuntzekoa. Zertxek zatika herdoilduak daude, eta zati bat eroria dago. Hormigoizko zutabeek ondo mantentzen dira, baina solera nahiko hondatua dago. Itxitura bertikalek azalerako uraren kalteak dituzte. Estalkia amiantoa duenez kentzea beharrezkoa da.



Lantegiaren egoera

3.- Lehortegi + pigmentazio eraikina

4 bolumenez osatua, behe gehi 1-2 solairuez osatua (B+1, B+2). 2055m². Hormigoi armatuzko egitura. Adreilu zulatuko itxitura, batzuetan zarpiatua. Estalkiak fibrozementukoak dira. Erdialdean patio txikia dauka, barruan adreiluzko tximinia daukana.

Hormigoizko egitura egoera onean dago. Itxitura bertikal batzuek mantenu falta dute (hezetasunagatik). Estalkiak amiantoa duenez kentzea beharrezkoa da. Tximinia inklinazio angelu txiki bat du, eta pitzadurak goialdean.



Lantegiaren egoera

4.- Akaberen pabilioia

Solairu bakarreko bolumena (B) 3 espazioetan banatua. 1900m². Zerra hortz formako estalkia dauka, zertxa metalikoez osatua. Hauek hormigoizko armatuzko zutabeen gainean bermatzen dira. Hormigoizko solera dauka oinarrian. Itxiturak adreilu zulatu eta zarpiatuak dira, eta estalkia fibrozementuzko eta beira zuntzekoa.

Zertxak eta hormigoizko zutabeek ondo mantentzen dira, baina solera nahiko hondatua dago. Itxitura bertikalek azalerako uraren kalteak dituzte. Estalkia amiantoa duenez kentzea beharrezkoa da.



Lantegiaren egoera

5.- Mantenu tailerra

Solairu bakarreko bolumena (B). 260m². Harri eta adreiluzko karga hormak ditu, zarpiatuak. Teilazko estalkia dauka, zurezko zertzen gainean. Hormek material falta dute, oinarrian batez ere. Estalkia guztiz eroria dago.



Lantegiaren egoera

6.- Larruen harrera pabilioia

Solairu bakarreko bolumena (B) 3 espazioetan banatua. 2400m². Zertxa metalikoez osatutako estalkia dauka, hormigoizko zutabeetan bermatua. Hormigoizko solera dauka oinarrian. Adreilu zulatuko itxitura, batzuetan zarpiatua. Estalkiak fibrozementukoak dira.

Zertxa metalikoen zati batzuk eroriak daude, baina osotasunean ondo mantentzen da. Hormigoizko zutabeek ondo mantentzen dira, baina solera nahiko hondatua dago. Itxitura bertikalek zatika hondatuak daude. Estalkia amiantoak duenez kentzea beharrezkoa da.



Lantegiaren egoera

7.- Galdara eraikina

Solairu bakarreko eraikina (B). 118m². Hormigoi armatuzko karga hornez osatua. Estalkiak fibroze-mentukoak dira.

Hormak ondo mantendu, iparraldean izan ezik (zulo handi bat dauka). Estalkia amiantoa duenez kentzea beharrezkoa da.



Ikaslea: Urko Saez de Asteasu Iñiguez de Heredia
Tutorea: Ula Iruretagoiena Busturia



Curtidos Salvatierra lantegiaren berreskurapena
Eraikinaren Analisia _ P. 27

Lantegiak suposatutako arazoak

Aguraingo arazorik larrienetako bat Curtidos Salvatierra lantegiaren inguruen urbanizazioa izan da. Bere azalera, herri nukleoan egotea, bere ezaugarriak, lekuaren abandonoa duela 10 urte eta lurzoru kutsatuaren kalifikazioa arazo handiak izan dira ebazpen bat bilatzeko.

Lehenengo ebazpena 10 urte lehenago planteatu zen. Lantegia herriaren industrialdera mugitu nahi zen, eta eremuan etxebizitzak eraikiko ziren. Hau ezeztatu zen partzela jabeek deskontaminazio gastuak ez zituztelako ordaindu nahi.

2009an Curtidos Salvatierra lantegia ateak itxi zituen, eta horren ondorioz eraikinek hondatzen joan ziren. Honen ondorioz, 2015ean udaletxeak partzela ruina bezala kalifikatu zuen.

Arazo hauek ikusita, eta ebazpenik ez zegoenez, herriko biztanleria altxatu da aldi askotan berehalako ebazpen bat eskatuz: lantegia iraultzea eta lurzoru deskontaminatzea.

1998an lantegiaren inguruetan etxebizitzak eraiki ziren, eta jabe berriei esan zitzaizen 5 urteetan lantegia kenduko zela eta etxebizitzak egingo zirela. Urte honetara arte ez dute mugimendurik ikusi.

2017an udaletxeak pleno bat eman zuen azalduz jada planifikatua zegoela eraikinaren iraultzea eta ondorengo deskontaminazioa. Hau eta gero Aguraingo hiri parke handiena eraikiko zutela azaldu zuen, bertan 40 etxebizitza altxatuko direlarik.

Parke honekin herritarrei eskaini nahi zaie arazoak ekarri dituen espazio hau.

2018ko urtarrilean iraultetak hasi ziren.



SE CREARÁ EL MAYOR PARQUE DEL MUNICIPIO

Agurain impulsa el derribo de Curtidos

El Ayuntamiento pedirá dinero foral para la descontaminación del suelo

Miércoles 21.06.17
EL CORREO

Salvatierra construirá un parque en la zona de Curtidos y demolerá la fábrica

Los trabajos, cuyo presupuesto alcanza los 1,4 millones, comenzarán en el otoño para habilitar una área verde de unos 20.000 metros cuadrados



curtidos
SALVATIERRA

Ikaslea: Urko Saez de Asteasu Iñiguez de Heredia
Tutorea: Ula Iruretagoiena Busturia

AMIANTO, CROMO Y ESCOMBROS EN EL CORAZÓN DE AGURAIN

Los vecinos y el Gobierno local de Agurain exigen el derribo de Curtidos Salvatierra, una planta abandonada que alberga amianto y lodos crómicos. La fabrica pertenece a dos empresas. Una se ha declarado en concurso de acreedores, y la otra dice que no tiene dinero.

ION SALGADO | GARA | GASTEIZ | 0 IRUZKIN



Curtidos Salvatierra lantegiaren berreskurapena
Eraikinaren Analisia _ P. 28

Partzelaren kutsadura


Kutsadura estudioa

Lantegiaren erabilera industrialaren ondorioz partzelaren portzentai handi bat kutsatua geratu da. 2014. urtean Agurain Udalak lurzoruen deskontaminazioaz arduratzen den enpresa bat kontratatu zuen (FCC AMBITO S.A.) lantegiaren lurzorua ekoizpenaren egoeraren estudio bat egiteko. Estudio honetarako partzelaren puntu ezberdinetan lurzoru kata batzuk egin ziren: 13 laginketa eta 5 sondeo. Guztiak arrokarara heldu edo 3mko sakontasuna zuten.

Ateratako muestrak laborategira bidali ziren eta analizatu eta gero, TPH-ak (petrolio hidrokarburoak), kromoa, plomua, tetrakloroetanoa, nikela, artsenikoa eta pentaklorofenola zeudela ikusi zen.

Ateratako emaitzak legediaren arabera hiri lurzoruetan onargarri ikusten diren balioekin konparatu ziren, eta lurzorua geruzan arabera sailkatu ziren. Lehenengo geruzan (betelanez osatua) 14 laginetatik 9 kaltegarri modura sailkatu ziren. Bigarren geruzan (lurzoru naturalez osatua) 19 laginetatik 2 kaltegarri modura sailkatu ziren. Lur azpiko uretan 4 lagin kaltegarri modura sailkatu ziren, baina nibel nahiko baxuetan. Santa Barbara errekan bi muestra likido hartu ziren, baina ez dute balio onargarririk gainditu, beraz ez daude kutsaturik.

Balio hauek ikusita, hiru kutsadura sailkapen daudela ondorioztatu dezakegu. Sailkapen hauek laginen kokapenaren balioen arabera dira. Honela esan dezakegu hiru eremu kutsadura kontzentrazio handia dutela (1.388m²), eremu solte batzuk kutsadura kontzentrazio ertaina dutela (2.029m²), eta beste eremu batzuk garbiak daudela (7.183m²).




- Kutsadura kontzentrazio handia
- Kutsadura kontzentrazio ertaina

Proiektua




Partzela abandonatu bat berreskuratu

Aguraingo herri tramaren erdialdean integraturik dagoen partzela handi eta abandonatua berreskuratu. Gaur egun oztopo bat da auzoen arteko komunikaziorako, baita ibaiaren arroa jarraitzen duen parkea jarraitzeko. Proiektuarekin partzela hau bizilagunei irekitzea proposatzen da.




Kutsadura ezabatu herri tramatik

Partzela nahiko kutsatua dago, puntu batzuetan bizigarriak ez diren mugak asko gaindituz. Eraikina herriaren erdian egonda, etxebizitzetaz inguratua dago, bizilagunen osasuna kaltetuz. Proiektuan partzelaren kutsadura guztiz garbitzea proposatzen da, ahal den heinean metodo naturalekin.



Eraikinaren memoria errespetatu

Lantegiak izaera industrial nabaria dauka. Bertan garatzen zen lanerako egitura paregabeak erabili ziren, denboran garatu direnak. Hauek argi handiak egotea ahalbidetzen du. Proiektuarekin eraikinak eskaintzen dituen espazioei etekin handiena ateratzea proposatzen da. Partzela funtzionala egiteko aldaketarik gutxienak egin dira, elementu berriak existitzen diren espazioak konektatzeko diseinatuz.




Parke urbano bat sortu

Ibaiaren arroa jarraituz parke lineal bat existitzen da, herriaren auzoen artean hedatzen dena. Lantegiaren partzelarekin topo egitean, hau desagertzen da oztopo batean bihurtuz. Proiektuak ibaia eta naturak eskaintzen dituzten onurak aprobetxatzea bilatzen du, eta honetarako existitzen den parke lineala jarraitzen da, eta eraikinen espazioen barnean sartzen du.



Aisialdia eta klimara erantzuten espazioak sortu


Herriaren klima oso euritsu eta hotza da. Honek kalean egiten diren ekitaldi, festa eta kultur ekintzak probetsu oso gutxi izatea suposatzen du. Proiektuarekin aisialdirako aprobetxagarriak izango diren espazioak proposatzen dira, bai guztiz klimatizatuak, baita kanpo espazio babestuak. Honekin herrian proposatutako ekintzak jorratu ahalko dira.



Elkarteetarako lantokiak sortu


Aguraingo elkarte ezberdinek geroz eta espazio gehiagoren beharra dute bere ekintzak jorrazteko. Gaur egun udaletxeak ez dauka espazio gehiagorik behar hauek asetzeko. Proiektuarekin aforo ezberdina izango duten espazioak proiektatzen dira, behar hauek asetzeko. Horma mugikorrek espazio hauei etekin gehiago atera ahalko zaie.

Proiektuaren diseinu garapena




0_Egungo egoera

Aguraingo herri tramaren barnean 10.800m²ko partzela okupatzen du lantegia. Eremua kutsatua dago kimikoeekin eta eraikinaren abandonoagatik zenbait zati erortzeko arriskuan daude.




1_Eranskin + espazio arriskutsuen eraispena

Eraikinaren bolumen residualak eta erortzeko arriskua duten elementuak eraisten dira, bolumen garbiagoak uzteko.




2_Espazioen oxigenazioa

Bolumen erabilgarrien artean distantzia sortu, argitasuna eta airearen garbiketa ahalbidetzeko.




3_Ibaiaren erreserba

Eusko Jaurlaritzak ibaiaren arroan erreserba planteatzen du, non ezin diren elementuak eraiki. Hemen kanpo espazio ezberdinak proiektatzen dira, ibaia jarraitzen duen parkeari segida emateko, sentsazio ezberdinekin jokatzuz.



4_Urzabal kalearen zabalpena

Lantegia, Confecciones Aitzgorri lantegia eta etxebizitza blokeak kalearen amaieran estutasuna sortzen dute. Honela puntu batzuetan errepidea bakarrik sartzen da. Oinezkoei kalea irekitzeko lantegiaren fatxada lerroa atzeratzen da.




5_Komunikazioak

Herriaren alde zaharra eta trenbidea lotzen dituen bidea eta erdigunearekin komunikatu lantegia. Jadanik existitzen den parkearekin lotu honi segida ematen. Hau lortzeko bi zubi altzatu eta hormak zulatutzen dira.


Proiektuaren etapak

Proiektua lau etapatan garatuko da eraikinaren tamaina eta lurzoruaren kutsadura dela eta. Lurzoruak laborategietan eta metodo naturalen bidez garbituko da, ahal den lurzoru gehiena modu naturalean garbituz. Lan egiteko modu honek azalera ezberdinekin jokatzea ahalbidetzen du, proiektua uneoro aldatzen, amaitua egon arte.




1_ Eraispenak

Birgaituko diren bolumenak sendotu eta besteak eraitsi. Ibaiaren arroa handitu.




2_ Curtidos 1

Curtidos 1-ko lurzoria oso kutsatua dagoenez, laborategietan garbitu, eta lurzoru berria kokatu. Etapa honen espazioetan erabilera guztiak sartu. Ibaiaren arroa ireki herrira. Bitartean kutsatutako lurzoria modu naturalean garbitzen da motelki.



3_ Curtidos 2


Curtidos 2ko lurzoria garbitua dagoenean, espazioa ireki. Curtidos 1-ko erabilerak banatu bi eraikinen artean.



4_ Curtidos Salvatierra

Kutsatutako azken lurzoria garbia dagoenean, espazioa ireki, eta aurreko etapetako erabilerak hiru eraikinen artean banatu. Lantegia herrira irekia egongo da, aisialdirako gune bat irabaziz.

Proiektuaren deskribapena



Espazioak

Ibaia partzelaren erdialdetik igarotzea eta lantegiaren bolumenen konposizioa proiektu baliotsu bat sortzea ahalbidetzen dute. Sortzen diren espazioak eskala ezberdinetara funtzionatzen dute, sentsazio ezberdinekin jokatzeko. Ahal den eanean natura bilatzen da, hau barne espazioetan ere antzematen.

Komunikazioak

Existitzen den ibai arroaren parkearen segida bat egiten da, bertan eraikuntzak antolatzen direlarik. Konexio berriak sortzen dira, barne espazio eta albo auzoen artean, elkargune modura kultur ekipamendu bat izanik.

Funtzionamendua

Eraikinak eskaintzen dituen espazioei etekin gehiena ateratzearren, administrazioa, erakusketa, topagunea, eta azalera gutxi eskatzen duten beste erabilerak egitura txikienetan antolatu dira, tailerrak eta ekialdiarako espazioak argi handiko egituretan sartuz. Honela atmosfera ezberdinak erabilera ezberdinetara bideratuz.

Kutsadura

Kutsaduraren kudeaketa


Partzela berreskuratzeko deskontaminazio prozesu bat planteatzea beharrezkoa da. Kutsatutako eremua 3.417m²ko azalera hartzen du. Prozesu hau ahalik eta merkeena izateko eta ingurugiroari kalterik ez suposatzeke bi metodo planteatzen dira.

Kutsadura kontzentrazio handia duten lurzoruek (1.388m²) induskatzeko makina batekin aterako dira, eta kamioien bitartez laborategira eramango dira bertan kimikoekin garbitzeko.

Kutsadura kontzentrazio ertaina duten lurzoruek (2.029m²) partzelan bertan bioerremediazioarekin garbituko dira. Prozesu honetarako Mizelio onddoa erabiliko da. Honek azido batzuk kanporatzen ditu, elementu kutsatuak deskonposatzen dituenak modu natural batean. Petrolioa eta pestizidak karbono hidratoetan bihurtzen ditu, kutsadura desagerraraziz. Onddo honek hedatzeko gaitasun handia dauka (1mm orduko).

Prozesu hau jarraituz 10.600m²ko partzela honetan dagoen arazoa metodo merke eta erraz batekin konpondu daiteke.

Metodo hau denbora luze batez iraun dezakenez, eraikuntza prozesua 3 etapatan egitea proposatzen da. Partzela hiru eremuetan zatitzen da, eta lurzorua garbitzen den heinean mantendutako eraikinaren espazioak berrantolatuko dira.



- Kutsadura kontzentrazio handia (laborategian)
- Kutsadura kontzentrazio ertaina (bioerremediazioarekin)

Lehenengo etaparen funtzionamedua _ Proiektuarekin garatuko dena

1 _ Ibaia

Santa Barbara erreka proiektuaren puntu indartsu bat bezala ikusten da, beraz lehenengo etapatik bizilagunei irekitzen da. Ibaia behar duen espazioa ematen zaio, bere arroa irekitzen. Honekin uholdeen arriskua jaisten da.

2 _ Ibaiaren inguruko parkea

Ibaira duen garrantzia emateko, honen inguruan parke lineal bat antolatzen da, jadanik honen ekialdean existitzen denari segida ematen. Ibaiaren arroa handitzean, honen malda leuntzen da, eta bizilagunek aisialdian etekina ateratzeko espazio bezala ikus daiteke.

3 _ Enparantza


Eraikinaren erdialdean enparantza estali bat antolatzen da. Hau inguruko erabilerak komunikatzeaz aparte, tailer mugikor bat eta parkearen transformazio bezala lan egiten du, eraikinak jasoko duen jendearen biltze gune bezala funtzionatuz.

4 _ Trantsizio gunea

Enparantza eta parkearen artean trantsizio gune bat proiektatzen da. Hau bi eskalekin jokatzeko du, erdialdean eraikinak zituen bolumenaren aztarnak dau delarik, tximinia adib. Hemendik zubi bat aurregago irekiko diren parke eta guneekin komunikatzen du (momentuan parkearekin bakarrik).

5 _ Eraikinak

Mantentzen eta aklimatatzen diren bolumenak programaren ia funtzio guztiak jasoko dituzte. Hauek duten inguruko espazioei bideratzen dira, aforo handia izango duten estantziak plaza eta ibaira bideratuz, eta aforo gutxi izango dutenak inguruko auzo lasaietara.



Lehenengo etaparen esku-hartzea

1_ Zubiak

Lehenengo etaparen eraikina inguruarekin hobeto konektatzeko bi zubi berri proiektatzen dira. Ipar-mendebaldekoa eraikinaren sarrera berria bezala funtzionatuko du. Honen profila eraikinaren zerra hortzeko formaren berrin-terpretazio bat da, kiebro batekin sarrera azpimarratuz.

2_ Eskailerak

Eraikinaren goiko solairuekin komunikatzeko eskailera berriak planteatzen dira bolumenen kanpoaldean, barnean sortzen den enparantzan. Hauek sarrera zubira bideratzen dira lehen solairuekin konektatzeko (hemen daude funtzio garrantzitsuenetarikoak).

3_ Estalki berria

Eraikinaren erdialdean sortzen den plazan estalki bat planteatzen da baldintza klimatikoetatik babesteko. Hau existitzen den altzairuzko egituraren gainean planteatzen da. Estalkia zurezko arrastrelez osatuko da, argia pasatzen uzten eta eguzki izpietatik babesten. Honen gainean beirazko gainazala instalatzen da.

4_ Horma mugikorak


Lehenengo etapan beste bi eraikinek obretan daudenez, tailer handia enparantza estaliaren barnean egokituko da. Hau zatigarria izango da eskala ezberdinetako ekintzak jorratzeko. Hau ixteko zurezko arrastrelez osatuak dauden horma mugikorak erabiltzen dira. Hauen errailak zoruan eta zertxetan lotuko dira. Sistema honekin demandaren arabera espazioa aldatuko da.

5_ Ibai hormaren profil berria


Ibaiaren arroa handitzekotan, honen alboan dauden hormak zulatzen dira uraren joan-etorria errazteko. Arroa handitzen denez, hormaren kota jaisten da, eta ondorioz horma beheeraka luzatu egiten da (zimendu berriekin). Honela barne enparantza eta naturaren arteko harremana nabarmenagoa egiten da.

6_ Fatxada berriak

Hegoaldeko eraikina eta barne enparantza topatzen diren fatxaden konposizioa ez du hauen arteko harremana sustatzen, beraz beirazko fatxada berri batzuk proiektatzen dira, harreman hau zuzenagoa izateko. Mendebaldeko eraikina barnetik bitan banatzen denez beirazko fatxada bat planteatzen da, eraikinaren sarrera eta barne funtzioak banatzeko, baina bisulaki komunikatuak egoteko.




Plaza - tailerra




1_ Irekia

Tailer-ekintzak ez daudenean horma mugikorrek biltzen dira eraikinaren hormaren kontra. Honela plaza estali handia dago, bizilagunak biltzeko, edota kanpo ekitaldiak egiteko: kontzertuak, feriak...




2_ Demanda txikiko ekintzeekin

Tailerrak antolatzen direnean horma mugikorrek espazioak itxi ahal dituzte. Hemen ekintza irekiak ikusi ditzakegu, non hormek ez dira guztiz ixten, eta ekintza eta kalearen muga difusoa da.




3_ Ekintza bat - irekia

Tailer bakar bat planteatzen bada, hau itxi daiteke, eta espazioaren beste azalera guztia bizilagunak erabili dezakete.



4_ Demanda handiko ekintzeekin

Jende ugari bilduko duen tailer-ekintza planteatzekotan, horma guztiak mugitzen dira espazioa ixteko, eta honen inguruan plaza desagertzen da, baina komunikazioak ahalbidetzeko espazio nahikoa dago.



5_ Ekintza ezberdinekin

Hiru ekintza ezberdin planteatzen badira enparantzaren horma guztiak ixten dira espazioak banatzeko, baita erdiko hormak ere. Inguruan komunikazioak ahalbidetzeko espazio nahikoa dago.

Programa

Behe solairua

Bulego eraikina

- 1. Harrera 46m²
- 2. Bulegoak 38m²
- 3. Bilera gela 25m²

Lehortegi eraikina

- 4. Kafetegia 108m²
- 5. Kafetegiaren sukaldea 9m²
- 6. Kafetegiaren biltegia 9m²
- 7. Tailerra 123m²
- 8. Biltetgia 22m²
- 9. Instalakuntza gela 28m²

Plaza

- 10. Plaza estalia 587m²
- 11. Kanpo tailerra 356m²

1 solairua

Bulego eraikina

- 12. Erakusketa gela 112m²

Lehortegi eraikina

- 13. Topagunea 316m²
- 14. Biltetgia 21m²


2 solairua

Bulego eraikina


- 15. Erakusketa gela 64m²
- 16. Terraza 50m²


Lehortegi eraikina


- 17. Gelak (3) 121m²
- 18. Terraza 72m²




Planoak














Ipar-mendebalde altxaera _ E: 1/200





Hego-mendebalde altxaera _ E: 1/200





Hego-ekialde altxaera _ E: 1/200




Ipar-ekialde altxaera _ E: 1/200




Luzerako ebaketa _ E: 1/150



Zeharkako ebaketa _ E: 1/250



A-A' ebaketa _ E: 1/250



B-B' ebaketa _ E: 1/250

Eraikuntza

Eraikuntza

LEIENDA

Estalkia

- ES01 _ Sandwich panela
- ES02 _ Sandwich panelaren gailur bukaera pieza
- ES03 _ IPE 160 perfila
- ES04 _ Erretena
- ES05 _ Erremate pieza

Fatxada

- FA01 _ Akabera morteroa
- FA02 _ Adreilu barrenuts bikoitza (zutika)
- FA03 _ Aire ganbara
- FA04 _ Isolatzaile termikoa injektatua
- FA05 _ Adreilu barrenuts bikoitza (hetzana)
- FA06 _ SATE sistema (barrutik kanpora): Mortero itsaskorra (1.5cm), harri zuntz isolatzaile termikoa (4cm), mortero oinarri geruza (7mm), inprimazio itsaskorra, silikato akabera (2mm)
- FA07 _ HEB 140 perfila (horma sostengatzeko beheko luzapena egin bitartean)


Zimentazioa

- ZI01 _ HA-30 hormigoia
- ZI02 _ Altzairuzko armatua
- ZI03 _ Lamina iragazgaitza
- ZI04 _ Delta drain konpresio geruza
- ZI05 _ Lamina geotextila
- ZI06 _ Tutu drenantea


Zorua

- ZO01 _ Hormigoi leundua (3cm)
- ZO02 _ Isolatzaile termikoa (2.5cm)
- ZO03 _ Zolata (15cm)
- ZO04 _ Poliespan junta
- ZO05 _ Lamina iragazgaitza
- ZO06 _ Garbiketa hormigoia (10cm)
- ZO07 _ Legarra
- ZO08 _ Maila freatikoa


Ibaiaren hormaren oinarri zaharra




Ibaiaren hormaren beheantzko luzapena




Ibaiaren hormaren oinarri berria




Ipar fatxadaren errematea





Ipar fatxadaren abiapuntua



Hego fatxadaren errematea



Hego fatxadaren abiapuntua



Eraikuntza

LEIENDA

Estalkia

- ES01 _ Teila arabiarra
- ES02 _ Arrastrela (5 x 5 cm)
- ES03 _ Isolatzaile termikoa (4cm)
- ES04 _ Lamina iragazgaitza
- ES05 _ Zurezko gapirioia
- ES06 _ Zurezko petrala (10 x 10cm)
- ES07 _ Zurezko bikoitiak (10 x 15cm)

Fatxada

- FA01 _ Jatorrizko fatxada
- FA02 _ Barne isolamendu sistema (barrutik kanpora): Mortero itsaskorra (1.5cm), harri zuntz isolatzaile termikoa (4cm), Mortero acabera (1.5cm)

Pasarela

- PA01 _ Jatorrizko egiturarekin lotura pieza
- PA02 _ UPN 350 perfla
- PA03 _ Zurezko zorua
- PA04 _ Barandaren altzairuzko egitura
- PA05 _ Baranda: zurezko arrastrelak (7 x 7cm)

Forjatua

- FO01 _ Hormigoia
- FO02 _ Txapa grekatua
- FO03 _ Jatorrizko Habea
- FO04 _ Lotura pieza

Enparantza estalkia

- EN01 _ Beira laminatua
- EN02 _ Altzairuzko perfil metalikoa
- EN03 _ Zurezko arrastrelak (7 x 7cm) 7cmro
- EN04 _ Jatorrizko egitura


Horma mugikorak

- HO01 _ Hormaren errailak: altzairuzko xafla, 2 UPN 100 perfil
- HO02 _ Zurezko horma mugikorak


Zorua

- ZO01 _ Hormigoi leundua (3cm)
- ZO02 _ Isolatzaile termikoa (2.5cm)
- ZO03 _ Zolata (15cm)
- ZO04 _ Lamina iragazgaitza
- ZO05 _ Garbiketa hormigoia (10cm)
- ZO06 _ Legarra


Enparantza estalkiaren errematea




Teilatu eta fatxadaren arteko topagunea




Enparantzaren estalkia (zeharkako ebaketa)




Jatorrizko egitura eta horma mugikorren topagunea





Pasarela berria eta fatxadaren arteko topagunea



Horma mugikorren abiapuntua



Fatxadaren abiapuntua



Egitura

Egitura

Konjuntoa egitura sistema ezberdinetaz osatua dago, bakoitza norabide ezberdin bat jarraitzen duena. Ipar-mendebaldean karga-horma eta erdiko zutabeekin funtzionatzen duen egitura daukagu. Honen estalkirako egurrezko zertxak erabiltzen dira. Proiektuarekin barrualdeko egurrezko forjatuak forjatu kolaborante batengatik aldatzen dira.

Hegoaldean hormigoizko egitura portikatua daukagu. Egitura honetan ez da esku-hartzerik egiten.


Kota aldaketagatik hegoaldeko fatxaden azpialdean kontentzio horma bat aurkitzen dugu.

Bi egitura hauen artean argi handiko pabilioia dago. Hau estaltzen altzairuzko zertxak erabiltzen dira, zerra hortzeko forma hartuz. Egitura honetatik hiru tramo birgaitzen dira.


Pabilioiaren iparraldeko horma hormigoizko zutabez betea dago. Proiektuarekin horma honen oinarriaren kota jaisten denez, hormari luzapena egitean zimentu berriak egin behar zaizkio.

Horma honen iparraldean sarrera zubia proiektatzen da, altzairuzko bi portikoetan helduko diren zertxetaz osatua. Zertxa hauetatik tirante batzuen bitartez zubiaren losa sostengatuko da.

Konjuntoaren ekialdean zubi berri bat proiektatzen da. Honen losa zutabeetan bermatzen da.



Zimenduak




Zimendu oina _ E: 1/250

Forjatuak

Proiekturako hegoaldeko egituraren gaur egungo forjatuak mantentzen dira, egoera honean aurkitzen direlako, eta irekigune bat egiten zaie igogailua sartzeko.


Ipar-mendebaldeko egituraren gaur egungo forjatuak aldatzen dira, honen morfologia aldatzen. Egitura honetarako forjatu kolaborante bat erabiltzen da.



Instalakuntzak

Ur hornidura

Ur hornikuntzaren makina gela eraikinaren instalakuntza gelan kokatzen da, konjuntorearen hegoaldean kokatua, biltegi nagusiaren ondoan. Honela espazioen konposizioari ez zaio eraginik egiten. Instalakuntzaren tutuak hego-mendebaldeko fatxadari paralelo joango dira, hornitzeko proiektatzen diren espazioak honekin harreman zuzena dutelako.



— Ur bero sanitarioa
— Ur hotza




Behe solairua _ E: 1/250

Saneamendua - Euri urak

Saneamendua eta euri uren ebakuzioa bananduak joango dira. Saneamendua kasuan gune hezeetako hondakinak hartuko dira. Behe solairuan sarea bi puntutan lotuko da herri sare nagusiarekin, ebakutu behar diren distantziak oso luzeak direlako, eta maldagatik zanga oso sakonak beharko zirelako.

Behe solairuan euri urak zoru gogorretan estolda linealetan bilduko dira, gero alboan dagoen ibaira bidaliz, eta berdeguneetako urak filtrazioz ebakutuko dira.




— Saneamendua
— Euri urak



Behe solairua _ E: 1/250

Euri urak

Estalkietan euri urak maldari esker kanaloietan erraz bilduko dira, eta behera bideratuko dira. Terrazen kasuan barrualdera bilduko dira urak eta behera bideratuko dira.



— Euri urak




Estalli oina _ E: 1/250


Suteak

Eraikina proiektatzerakoan suteen kasuan erabiltzaileen ebakuazioa kontutan hartu da, hauek luzeak ez izatekotan, eta kanpo espazio seguruetara erraz heltzeko. Eraikuntza Kode Teknikoak terrazak espazio seguru hauen barnean sartzen ditu.

Eraikinaren kokapenari begira, suitzaileek eraikinaren barrualdera eta fatxadetara erraz heltzeko baldintzak betetzen dituzte.



Behe solairua



Bigarren solairua

— Suteak

